

UNITATE DIDAKTIKOA: DBHko 1. Zikloa

Puk eta harresia

“Bakea lortzeko, armak ez ezik, beste zerbait ere baztertu behar dugu; akaso, pribilegioak, soberakinak, bidegabekeria, askonahia eta nabarmendu nahia”

[Vera Grabe. Bakearen Aldeko Behatokiko antropologoa eta ikertzailea].

Helburua*

1. Bakea bermatzeko, indarkeria- eta bidegabekeria-egoeretan, jarrera aktiboa eta arduratsua izan behar dela erakustea.

Dinamika*

Proposatzen dugun dinamikak bi atal hauek ditu:

- Batetik, fikziozko istorio bat aztertzea: Puk eta harresia. Elkarrekin modu baketsuagoan eta konprometituagoan bizitzera gonbidatzen gaitu modu sinbolikoan.
- Bestetik, mundu baketsuagoa eta bidezkoagoa eraikitzeke oztopo diren indarkeria- eta bidegabekeria-egoerak aztertzea. Azkenik, ‘bakearen kultura’ sustatzeko irtenbideak imajinatzeke eskatuko zaie ikasleei.

1. “Puk eta harresia”

Puk eta harresia istorioa www.IntermonOxfam.org web orritik deskargatu dezakezu. “Armak kontrolpean” maleta pedagogikoaren “Kontroletik kanpo” CDan ere badago. Maleta eta CDa, edo CDa bakarrik, eska daiteke **902 330 331** telefonora deituta.

Puk eta harresia irakurri ondoren, galdera hauei erantzun behar diete ikasleek:

1. Uste duzu harresiak hiria babesten zuela?
2. Harresia beharrezkoa da gure burua babesteko?
3. Pukek harresia eraisteko eskatu die gobernari. Zergatik uste duzu ez diotela kasurik egin?
4. Zer irtenbide ematen diote Puki gobernari zerbait eskatzen dien bakoitzean? Uste duzu bestelako irtenbideak eman daitezkeela?
5. Hiria gobernatzeko dutenak kontent eta pozik daudela iruditzen zaizu?
6. Puk izango bazina, harresiz bestaldean zer gertatzen den jakin nahiko zenuke?
7. Zer gertatzen da Puk konturatzen denean harresiz bestaldean neskato bat dagoela?
8. Bihotz bat dago marraztuta harresian. Zer esan nahi du?
9. Nola lortu dute harresia eraistea?
10. Gustatutako litzazuke eskolan haur koxkortuak eta txikiak bereizten dituen eta elkarrekin hitz egiten uzten ez dizuen harresi bat izatea?
11. Zenbaitetan, badirudi jendearen artean tarte gairdiezina dagoela, elkarren artean harresi bat egongo balitz bezala. Ados zaude? Istorioak kontatzen duenaren antzeko egoeraren bat ezagutzen duzu bizitza errealean?
12. Zure ustez, zer egin dezakegu ‘bizitza errealeko harresia’ eraisteko?

[Irakasleak eztabaida zuzendu beharko du, ikasleek herritar kritiko eta arduratsu gisa aritzeko bide demokratikoak ezagut eta gauzatu ditzaten: arduradun politikoei edo herriaren defendatzaileari idaztea egoera adieraziz, bizilagunen elkarteetara joatea eta proposamenak aurkeztea, jolas-jarduerak egitea (antzerkia, jokoak...) arazoari edo irtenbideei buruz hausnartzeko...].

2. Eztabaida eta ekitaldi sinbolikoa prestatzea

Azken eztabaidan, istorioaren bi alderdi hauek azpimarratu daitezke:

1. Batetik, **gubernarien jarrera**. Beldur direlako edo bakearen kontrako interesak dituztelako, oztopoak jartzen dizkiote bizikidetzak baketsuari, eta beldurra eta ezjakintasuna indartzen dituzte.

Ikasleei adieraztea mundu baketsuago bat eraikitzea eragozten duten 'harresi' asko daudela gaur egun (ahaztutako gatazkak, bidegabeko egoerak...). Testu eta titulu hauek lagungarriak izan daitezke egoera horietako batzuk nabarmentzeko:

Intermón Oxfam-ek salatzen du dohaintza-emaileek 20 aldiz gehiago gastatzen dutela “laguntza militarrean” laguntza humanitarioan baino

Intermón-ek salatu du gobernuak ez dietela ahaztutako krisiei ematen garrantzi politiko handiko krisiei ematen dieten tratu bera. Bestalde, CNN efektu delakoak (une jakin batean albiste diren larrialdietan kontzentratzea laguntza) asko baldintzatzen du laguntza humanitarioaren funtsen emaria, eta, efektu horren eraginez, erantzunik gabe geratzen dira ahaztutako krisietako beharrak.

Munduan 900.000 milioi dolar gastatzen dira urtean defentsan; gutxiago garatutako herrialdeei laguntza ematen gastatzen dena baino 20 aldiz gehiago.

2005ean krisi humanitarioei laguntzeko Nazio Batuek eskatutako funtsei dagokienez, zifrek ez dute azalpenik behar: tsunamiaren hondamendiko ondorioak arintzeko nazioarteko komunitateak milioika dolar emango dituela hitz eman arren, Kongoko Errepublika Demokratikorako eskatutakoaren % 50 besterik ez da jaso orain arte. Herrialde horretan bi milioi pertsona baino gehiagok galdu dute bizia 1997az geroztik.

Kasurik nabarmenenetako bat Nepalekoa da. Han, Nazio Batuek eskatutako 64 milioi dolarretatik % 2 bakarrik eman dute dohaintza-emaileek.

Intermón Oxfam-ek uste du ezin daitezkeela lehen eta bigarren mailako biktimak egon. Adibidez, tsunamirako agindutako laguntzak kaltetutako pertsona bakoitzeko 500 dolarrekoak dira, batez beste; Ugandaren iparraldean, orain dela hamabost urte baino gehiagotik gerra zibila bizi duen herrialde horretan, pertsonako 50 dolar-zentabo da batezbestekoa.

Darfur-eko krisi humanitarioa 2006ra arte edo gehiago luzatuko dela jakinarazten du Intermón Oxfam-ek

Darfur-eko gerra 2003ko otsailean hasi zen, mundu osoa Iraki begira zegoenean. Gerra hartan dozenaka mila pertsona hil ziren indarkeria armatuaren, gosearen eta gaixotasunen ondorioz. Gatazka hark bi milioi desplazatu eta errefuxiatu baino gehiago sortu ditu. Nazioarteko laguntzak bizitza asko salbatu ditu, baina kondizioak eta laguntza-kopurua beste batzuk balira salbatuko litzatekeenak baino gutxiago.

Bost etorkin hil dira Ceutan, hesiaren alde batetik bestera salto egitean tiro egin zitelako

2005/09/30eko El País

Saharaz hegoaldeko bost etorkin hil ziren bart, Ceutan sartzeko muga-hesiaren gainetik salto egin nahian ari zen 600 laguneko jende-oldea ikusirik Espainiako eta Marokoko segurtasun-indarrak geldiarazten saiatu zirenean.

Misiolari konboniano bat Ugandaren iparraldean: «**Afrikan hildakoek munduaren beste leku batzuetan hildakoek baino garrantzi gutxiago dute**». Afrikan egunero bizi dute tragediaren bat, baina biktimek etsipenean ihes egitean gure mugak igarotzen dituzten arte ez gara tragedia horietaz gogoratzen. Nork daki Ugandaren iparraldean gerra krudela dagoela duela 20 urte baino

Indarkeria-giroa Frantzia osoan

4.000 auto baino gehiago erre dituzte Frantzian, eta ia 900 lagun atxilotu dituzte (30 laguni kartzela-zigor irmoa ezarri diete) urriaren 27az geroztik. Egun horretan, bi nerabe hil ziren elektrokutatuta Clichy-sous-Bois herrian.


2005/11/07ko El País

(...) 70eko hamarkadan, gurasoek bazekiten seme-alabak haiek baino hobeto biziko zirela. 80ko hamarkadaz geroztik, ez da hala gertatu. Frantzian % 10eko langabezia-tasa dago, baina auzo jakin batzuetan –pil-pilean daudenetan– % 30ekoa da. (...)






2005/11/14ko La Vanguardia

- Zer ezaugarri komun dute berri horiek?
Bakearen edo indarkeriaren aldeko jarrerak adierazten dituzte?
- Prentsak egunero erakusten dizkigu gatazka bortitzak, gerrak... Baina gaur egun gertatzen ari diren gatazka asko ez dira sarri agertzen prentsan.
Zergatik?
- Kokatu mapan aurreko tituluetan aipatzen diren Afrikako gatazkak.
- Kontsultatu orain dela gutxiako egunkari bat, eta bilatu Afrikako kontinentearekin zerikusia duten berriak.
Uste duzu misiolari konbonianoak arrazoi duela?
- Galderei erantzundakoan, guztiontzako mundu zuzenagoa eta baketsuagoa eraikitzea eragozten duten egoeren edo jarreraren zerrenda bat egin.

“GATAZKA ARMATUAK ETA BAKE ERAIKUNTZA MUNDUAN”



“ALERTA 2003. GATAZKA, GIZA ESKUBIDE ETA BAKE ERAIKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA”. ESCOLA DE CULTURA DE PAU, 2003, EDITORIAL ICARIA.

 Gatazka armatua duten herrialdeak	 Arrisku handiko disputak dituzten herrialdeak
 Konpondu gabeko gatazkak dituzten herrialdeak	 Bake prozesu edo negoziazioak gauzatu dituzten herrialdeak
	 Gatazka osteko berreraikuntzan ari diren herrialdeak

Gatazka armatua: hainbat eratako taldeek eragindako enfrontamentu guztiak dira, armak edota bestelako suntsipen bideak erabilia, urteko 100 hildako baino gehiago eragiten dituztenak. Honatx taldeak: indar militar erregularrak edo irregularrak, gerrilak, oposizioko talde armatuak, talde paramilitarrak, edo erkidego etniko edo erlijiosoak.

Nortzuk hiltzen dira gatazka armatuetan?

Bazenekien gatazken biktima guztien % 90 ez direla soldadu baizik eta herritar zibilak? Arma txiki eta arin batekin jotako tiroak hiltzen ditu gehienak: pistolak, metrailadoreak, fusilak, eta abar.

Idatzi paperetan sortu diren ideia guztiak. Esne-kaxak paper horiekin estali. Esne-kaxa horiekin, horma bat eraikiko duzue, eta, Indarkeriaren aurkako eta Bakearen aldeko eskola-eguna amaitzeko ekitaldi sinbolikoan, eraitsi egingo duzue.

[Irakasleak ikasleak orientatu beharko ditu indarkeria-egoeren eta injustiziaren arteko erlazioaz hausnar dezaten, baita herritar arduratsu gisa jarduteko beharrez ere, hau da, herritar informatuak izateko beharrez eta injustizia sozialeko egoerei aurre egingo dieten herritarren gisa jokatzeko beharrez]

2. Bestetik, **Puken jarrera kementsua eta ausarta**, mundu baketsuagoa eraikitzen laguntzen duena. Jarrera horrek pentsarazi behar digu guk zer erantzukizun daukagun, banakako eta talde gisa, guztiontzako mundu bidezkoagoa eta baketsuagoa eraikitzeko eginkizunean.

Pentsatu zer irtenbide baketsu izan ditzaketen goiko titulueta egoerek. Ordezko irtenbideak bilatzeko, baliagarria izan daiteke gutun hau:

Errepublikako lehendakariarentzako gutun irekia

Errespetuaren, duintasunaren eta elkarrizketaren bidez, ordena ezartzea. Giza garapenaren alde lan egitea, eta ez errepresioaren alde!

Frantziako hainbat herritan azken egunotan sortu den indarkeriak –barne-ministroaren probokazioekin zerikusia duenak– kezka eta haserrea sortu du. Mouvement de la Paix bake-kulturaren aldeko mugimenduan, sentimendu hori partekatzen dugu, eta ezin dugu indarkeria hori onartu. Ez dago justifikatuta, hezkuntzaren, prebentzioaren, lan-munduratzearen edo garraioaren sektoreetan -garapenerako eta gizarte-alorrerako funtsezkoak diren arloetan- oso lan aktiboa egiten ari diren gizon-emakumeen lokal sozialen aurka eta jadanik oso egoera zailean bizi diren pertsonen aurka zuzenduta baitago.

Gertakari horiek argi uzten dute errepresioa –barne-ministroak eskainitako irtenbide bakarra– porrota dela. Ondo erakusten dute berdintasunaren, askatasunaren eta senidetasunaren helburu errepublikarrak lortzen gure gizarteak izan duen porrota; beste behin ere frogatuta utzi dute gutxiesteak, arbitrariotasunak eta injustiziak ez dutela politika sozial ona egituratzen eta kale itsuetara eramaten dutela, indarkeria sortzen den kaleetara. 14 urtetik gora dutenek lanbide-heziketan sartzeko Villepin-ek proposatu dituen neurriak ez dira egokiak, inondik ere, gure gazteek dituzten arazoan zabalatasunari aurre egiteko.

Segurtasunik eza areagotzeak –dirua gehiegi balioesten duen gizarte honetan– apartheid sozialaren egoerak sortzen ditu. 10 milioi behartsu baino gehiago daude, langabeziak familia osoari erasotzen dien hainbat auzo daude, gazteen % 30i baino gehiagori erasotzen dien auzoak, eskola saturatuak, etxebizitza osasungaitzak: jendea etsita bizi da, baina, antidoto gisa, batera jarduten dute. Elkarrekin, ordezkaritza hautetsiek, langile sozialek, zerbitzu publikoek, biztanleek eta saltzaileek egunero sortzen dituzte lotura sozial horiek. Lotura horiek egon ezean, indarkeria erabat nagusituko litzateke.

Zehazki gizarte-alor horren eraikuntza sendotu behar da, eta auzoei eta bertako biztanleei benetako baliabideak eskaini behar zaizkie. Giza garapenerako proiektu errealairen alde lan egin behar dugu, guztiek izan dezaten lanerako eta heziketarako, kulturarako, etxebizitzarako eta osasunerako aukera; atzerriko bizilagunentzat herritartasuna eta botoa lortzen ere lagunduko du proiektu horrek. Beharrezkoa da arrazismoaren eta diskriminazioaren oztopoa errukirik gabe jazartzea.

Gure herrietan eta auzoetan bakea ereiteak elkarrizketaguneak, eragin-truke sozialak eta pertsona guztien arteko eragin-trukeak areagotzea adierazten du. Benetako aldaketa eraikitzea ere esan nahi du, errespetua, duintasuna, justizia eta guztiontzako eskubideen nagusitzea ekarriko duena.

2006rako eztabaidatzen ari diren aurrekontu-partidak kontrako norabidean doaz, zoritxarrez: murriztu egin dituzte zerbitzu publikoak eta tokiko komunitateen aurrekontua. Herriko hezkuntza-elkarrekin berebiziko papera dute integrazio sozialean, aisialdian eta kulturaren; haien baliabideak murrizteak arriskuan jar dezake haien lana. Aldi berean, defentsa-aurrekontua % 3,4 igotzea aurreikusten da. Kopuru horrek 47,8 milioi euro esan nahi du; erdia

arma berriak (arma nuklearrak barne) eraikitzen bideratuko da. Etxebizitza Sailera, aldiz, 7 milioi euro bakarrik bideratuko dira.

Nola onar daiteke elkarrizketa-eskaerari "misil berriekin" erantzutea? Bakea eraikitzea gerra egitea baino askoz zailagoa da; baina, giza ikuspuntutik eta ikuspuntu sozial eta ekonomikotik, onar daitekeen bide bakarra da.

Bakea ez da gatazkarik eza, ezta gerra egiteko ezintasuna ere; indar armatuaren erabilera borondatez baztertzea da, hori baino irtenbide eraginkorragoak eta iraunkorragoak baitaude. Badirudi gure politikari arduradunek (arduragabeek) ez dutela imajinaziorik, eta gorrotoaren eta banaketaren joko arriskutsuan jolasten jarraitzen dute.

Mouvement de la Paix-ek, biltzar nazionala egin baino egun batzuk lehenago, "bakea auzoan hasi eta mundu osoan lantzeko" konpromisoa hartu du, eta Errepublikako lehendakariari dei egin dio inplikatu guztiak bilduko dituen biltzar nazionala dei dezan, berdintasun-, askatasun- eta senidetan-balio errepublikarrak praktikan jartzeko, leku guztietan eta guztiontzat.

Adierazpen batean idatz daitezke ikasleen ideiak. Indarkeriaren aurkako eta Bakearen aldeko eskola-eguna amaitzeko, bakearen alde hartu dugun konpromisoa erakusteko ekitaldi sinbolikoa izango litzateke adierazpen hori.

Ikasgelan lanean jarraitzeko:

Mundu zuzenagoa eta baketsuagoa eraikitzen ahalgina ezin daiteke egun bakar batera mugatu. Hori dela eta, Intermón Oxfam-etik proposamen didaktiko batzuk egin nahi dizkizuegu ildo horretan lanean jarraitzeko:

- **Bakea eraiki dezagun** monografikoa (4 orduko unitate didaktikoa). Bakeari, indarkeriari edo gatazkari buruzko hausnarketa proposatzen du. Gatazken aurreko jarrerak ebaluatzea du asmoa, arazoei irteera kooperatiboa eskaintzeko.

Material hori web-etik deskargatu dezakezu (www.IntermonOxfam.org/educar/monograficos) edo **902 330 331** telefonoaren bidez eros dezakezu.

- **Armak kontrolpean** maleta pedagogikoa. Ikasleentzako eta irakasleentzako hainbat materialek eta baliabidek osatzen dute proposamen globalizatu hau. Proposamenak helburu hauek ditu: armek gizartearen duten eragina ezagutzea, indarkeriaren kultura indargabetuko duten balioak eta jarrerak sustatzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beste bide batzuk aurkitzea.

Hemen aipatzen diren materialek osatzen dute maleta; material horiek guztiak batera edo bakarka eskuratu daitezke **902 330 332** telefono-zenbakira deituta:

- **Dossier informatzaile bat:** "Vidas destrazadas".
- **DVD bat:** Kontroletik kanpo
- **Lan-koaderno bat:** "Arma arrunt baten historia"
- **Gida didaktiko bat:** 1. eta 2. zikloak
- **Baliabide-karpeta bat:** "Mugi zaiten armak kontrolatzearen alde"
- **Joko interaktibo bat CDan:** "ALFA 3"

- **Su etena: Armen negozioa** Global Express edizioa. Global Express dimentsio mundialeko gai eta gertakariak aztertzeko tresna da. Argitalpen honek agerian utzi nahi du armek gizartearen duten eragina, eragin larria, eta analisi kritikoa hasi nahi du indarkeriaren kulturaz. Halaber, kultura horrekiko aukerabideak eskaini nahi ditu.